



**Fernando Buesa Arena**

**“FERNANDO BUESA ARENA, KIDE BAKARREKO SOZIJETATE ANONIMOA”**

**2008EKO EKITALDIKO MEMORIA LABURTUA**

**1. OHARRA. ENPRESAREN JARDUERA**

“FERNANDO BUESA ARENA, SA” 1999ko maiatzaren 12an Gasteizen sortutako “ARABA ARENA, SA” izeneko sozietatetik dator. 2001eko ekainaren 26an, “ARABA ARENA, SA” izenaren ordeZ “FERNANDO BUESA ARENA, SA” jartzea erabaki zen.

Sozietatearen helbidea Gasteizen dago: Probintzia plaza, zenbaki gabe.

Sozietatearen helburua, bere estatutuen 1. tituluari dioenez, hauex da:

*“Sozietatearen helburua da Fernando Buesa Arena erabilera anitzeko aretoa ekonomikoki erabat kudeatzea, ekonomikoki ustiatu eta aprobetxatzea eta kirol, kultur eta gizarte ekitaldiak antolatzea”.*

Legez, Sozietate Anonimoei buruzko Legeak arautzen du. Lege horren testu bategina abenduaren 22ko 1564/1989 Errege Dekretuaren bidez onartu zen, eta ez dago hari aplikatzen beste inolako araudi espezifikorik.



## **2. OHARRA. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK**

### **a) Benetako irudia**

Urteko kontuak sozietatearen kontabilitate erregistroetatik prestatu dira, kontabilitateari dagokionez indarrean dauden legezko xedapenak aplikatuta, entitatearen ondarearen, finantza egoeraren eta emaitzen benetako irudia erakusteko, ondarearen aldaketak baita ere.

### **b) Informazioaren alderaketa**

1515/2007 Errege Dekretua aplikatzen den lehenengo ekitaldia izanik, finantza orriak hasierakotzat joko dira eta ez dakarte aurreko ekitaldiarekin erkatutako informaziorik.

### **c) Urteko kontu laburtuak**

Indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzeko, administratzaileek urteko kontuak laburtuta aurkeztu dituzte.



### **3. OHARRA. EMAITZEN BANAKETA**

Akziodunen Batzar Nagusian aurkeztu da ekitaldiko emaitzaren aplikazio hau:

|   | <b><i>Euro</i></b> |
|---|--------------------|
| <u>Banaketa oinarria</u>                      | <u>-46.350,45</u>  |
| - Galerak eta irabaziak (Galera)              | -37.719,68         |
| - Aurreko ekitaldien emaitzak                 | -8.630,77          |
| <u>Banaketa</u>                               | <u>46.350,45</u>   |
| - Bazkideen ekarpena, galerak konpentsatzeko. | 46.350,45          |

### **4. OHARRA. BALIOESPEN ARAUAK**

#### **a) Finantza tresnak**

##### **a.1) Finantza aktiboak**

*Merkataritzako eta merkataritzatik kanpoko eragiketengatik ordaindu beharreko kredituen balioa arrazoizko balioa da, eta hau bat dator balio nominalarekin, epealdia urtebete baino laburragoa baitute, ekitaldia ixten denetik zenbatuta.*

##### **a.2) Finantza pasiboak**

*Eragiketa komertzialengatik eta ez-komertzialengatik ordaindu behar diren zorrak eta partidak arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, balio nominalarekin bat datorrena. Ekitaldia ixten denetik aurrera urtebetetik beherakoa izan behar da mugaeguna.*



**b) Sozietateen gaineko zerga**

Sozietateak ez du batere gasturik sortu zerga-kontzeptu honi dagokionez. Bestalde, ez da erregistratu ekitaldiko Zerga Oinarri Negatiboengatiko kreditu fiskalaren ondorioa.

**c) Balio erantsiaren gaineko zerga**

Sozietateak zerga honi lotutako jarduerarik egin ez duenez, gastuen zenbatekoak barne hartzen du, aplikagarri den kasuetan, eragiketa zergapetzen duen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) zenbatekoa.

**a) Diru-sarrerak eta gastuak**

Diru-sarrerak eta gastuak sortzapen printzipioaren arabera erregistratzen dira, hau da, dagozkien ondasun eta zerbitzuen korrante erreala egitean, berdin dio horietatik ondorioztatzen dena finantza edo moneta korrantea den.

Bazkide bakarrak sozietatearen funtzionamendu gastuak finantzatzeko emandako ekarpenak funts propioen kontuetan erregistratzen dira zuzenean, “bazkideen ekarpenak, galerak konpentsatzeko” kontzeptupean.



**5. OHARRA. FINANTZA TRESNAK**

**a) Finantza aktiboak**

Ondoren sozietatearen finantza aktiboak biltzen dituzten partidak, 2008ko abenduaren 31ko datarekin, xehakatuko ditugu:

|  | <i>Euro</i>       |
|--|-------------------|
| - Merkataritza zordunak eta beste batzuk | 45.190,87         |
| - Diruzaintza                            | 116.010,11        |
| <b>GUZTIRA</b>                           | <b>161.200,98</b> |

**Merkataritza zordunak eta beste batzuk**

Kontu hau dauka:

Partida honetako saldoa honako kontzeptu hauek osatzen dute:

|                           | <i>Euro</i>      |
|---------------------------|------------------|
| - Hainbat zordun          | 43.634,63        |
| - Administrazio publikoak | 1.556,24         |
| <b>GUZTIRA</b>            | <b>45.190,87</b> |

“Hainbat zordun” epigrafeak Sozietateko zenbait sarrerak dauzka.

**Diruzaintza**

2008eko abenduaren 31ko diruzaintza kontu korrante batean gauzatzen da, Caja Vital Kutxa finantza entitatean, 116.005,13 euroko zenbatekoarekin eta kaxan 4,98 euroko saldoarekin.



## Fernando Buesa Arena

### b) Finantza pasiboak

Ondoren Sozietatearen finantza pasiboak biltzen dituzten partidak, 2008ko abenduaren 31ko datarekin, xehakatuko ditugu:

|  | <i>Euro</i>     |
|--|-----------------|
| - Merkataritzako hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk | 4.940,95        |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>4.940,95</b> |

Kontu hau dauka:

|                                | <i>Euro</i>     |
|--------------------------------|-----------------|
| - Merkataritzako hartzekodunak | 4.939,30        |
| - Administrazio publikoak      | 1,65            |
| <b>GUZTIRA</b>                 | <b>4.940,95</b> |

## 6. OHARRA. FUNTS PROPIOAK

Funts Propioak osatzen dituzten kontzeptuek ekitaldian izan duten bilakaera hauxe da:

| <i>Kontzeptua</i>                       | <i>Euro</i>       |                             |                     |                           |                   |
|---|-------------------|-----------------------------|---------------------|---------------------------|-------------------|
|   | <i>Hasiera</i>    | <i>2007 Emaít Banaketa.</i> | <i>2008 Emaítza</i> | <i>Bazkideen Ekarpena</i> | <i>Finala</i>     |
| - Kapital soziala                       | 200.000,00        | 0,00                        | 0,00                | 0,00                      | 200.000,00        |
| -Aurr. ekitaldietako emaitza negatiboak | -68.630,77        | 0,00                        | 0,00                | 0,00                      | -68.630,77        |
| - Bazkideen ekarpena, galerak konpen.   | 60.786,87         | -35.518,01                  | 0,00                | 37.341,62                 | 62.610,48         |
| - Galerak eta irabaziak                 | -35.518,01        | 35.518,01                   | -37.719,68          | 0,00                      | -37.719,68        |
| <b>GUZTIRA</b>                          | <b>156.638,09</b> | <b>0,00</b>                 | <b>-37.719,68</b>   | <b>37.341,62</b>          | <b>156.260,03</b> |



## Fernando Buesa Arena

- “Kapital soziala” berrehun mila euro dira (hogeita hamahiru milioi berrehun eta hirurogeita hamazazpi mila eta berrehun pezeta), berrehun euroko balio nominaleko mila akziorekin, guztia akziodun bakarrak harpidetuta eta ordainduta: Arabako Foru Aldundia.

Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko martxoaren 23ko 2/1995 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera, horren bidez aldatzen baita Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Testu Bategina, sozietateak Merkataritza Erregistroan izena eman du kide bakarreko sozietate modura.

Administrazio Kontseiluak, 2007ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, erabaki du galerak konpentsatzeko 60.000,00 euroko kapital murrizketa aurkeztea sozietateko Akziodunen Batzar Nagusiari, onar dezan. Horrekin kapitala 200.000,00 eurotik 140.000,00 euro izatera pasatuko da.

Erabaki honek indarrik gabe utziko luke Batzar Nagusiak 2005eko ekainaren 7an hartutakoa, zeinaren bidez erabaki baitzen galerak xurgatuz kapitala 120.000,00 euro murriztea.

Diputatu Nagusiak, 2008ko abenduaren 31an, 273/08 Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiak 37.341,62 euroko transferentzia egitea erabaki zuen, ekitaldiko ustiapen galerak konpentsatzeko helburuaz.

Ekarpen gehigarria, hipotetiko hurrengo urteen galerak erabiliko da.



**8. OHARRA EGOERA FISKALA**

- Sozietateen gaineko Zergaren zerga oinarri negatiboa bat dator ekitaldiaren emaitzarekin (37.719,68 euroko galera).

Konpentsatu gabe daude honako zerga oinarri negatibo hauek, honako banakapenean:

|                   | <i><b>Euro</b></i> | <i><b>Muga</b></i> |
|-------------------|--------------------|--------------------|
| 2001eko ekitaldia | 12.681,07          | 2016               |
| 2003ko ekitaldia  | 45.422,00          | 2018               |
| 2004ko ekitaldia  | 111.522,22         | 2019               |
| 2005eko ekitaldia | 18.155,15          | 2020               |
| 2006ko ekitaldia  | 239.669,96         | 2021               |
| 2007ko ekitaldia  | 35.518,01          | 2022               |
| 2008ko ekitaldia  | 37.719,68          | 2023               |

- Ikuskatzeko prest dago preskribatu gabeko denboraldi osoa (lau urte) aplikagarri zaizkion zergei dagokienez.



**8. OHARRA.- DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK**

**a) Bestelako ustiapen gastuak**

Partida horren barnean jasota daude gastu hauek:

|                                       | <i>Euros</i>     |
|---------------------------------------|------------------|
| - Zerbitzu profesional independenteak | 3.276,78         |
| - Aseguruen primak                    | 2.976,40         |
| - Bestelako zerbitzuak                | 42.949,06        |
| <b>GUZTIRA</b>                        | <b>49.202,24</b> |

“Bestelako zerbitzuak” izeneko partidak sozietatearen jardueraren esparruan kokatzen diren ekitaldiak antolatzeko (24.000,00 euro) eta pabelloi egokitzeko gastuen zenbatekoa jasotzen du.

**b) Diru-sarrera finantzarioak**

Partida honek barne hartzen ditu sozietateak Caja Vital Kutxa finantza-entitatean irekita duen kontuaren interesak, 10.373,24 euroko zenbatekoarekin.



**9. OHARRA. BESTELAKO INFORMAZIOA**

**a) Administrazioko Kontseiluko kideen ordainsariak ekitaldian zehar**

2008eko ekitaldian zehar, Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek ez dute ordainsaririk jaso inolako kontzeptupean.

**b) Auditoreen ordainsaria**

Sozietateko auditoreen ordainsaria 1.048,85 eurokoa izan da ekitaldian.

**c) Bestelako informazioa**

FERNANDO BUESA ARENA, Kide Bakarreko Sozietate Anonimoaren administratzaileek ez dute partaidetzarik eta ez dute sozietatearen helburu berbera, analogoa edo osagarria duen lanpostu edo eginkizunik beren enpresan. Hala ere, Administrazio Kontseiluko zenbait kidek zuzendaritza postuak edo Arabako beste Foru Sozietate Publikoetan kudeaketarekin loturiko eginkizunak ditu, eta hango kapitalean ez dute partaidetzarik Arabako Foru Aldundikoak ez diren bazkide eta akzionistek, ez zuzenean, ez zeharka. Lanpostu eta eginkizun horiek ez dira baztertu memoriaren ohar honetan, ez baita uste beren diligentzia eta leialtasun betebeharrei kalterik egiten dienik edota interesengatik gatazka potentzialik, uztailaren 17ko 26/2003 Legearen testuinguruan betiere, horren bidez aldatzen baita uztailaren 28ko 24/1988 Legea, Baloreen Merkatuari buruzkoa, eta Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Testu Bategina, abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintza Errege Dekretuak onartua.



**Fernando Buesa Arena**

***10. OHARRA. ITXIERAREN ONDORENGO GERTAERAK***

Urteko kontu hauek egin aurretik ez da antzeman administratzaileek ekonomia eta finantzari dagokioenez ezer esanguratsurik egin dutenik, 2007eko abenduaren 31ko sozietatearen finantza-egoeran eta egoera globalean ondoriorik izan lezakeenik.

***11. OHARRA. INGURUMENA***

Sozietatearen jarduera dela-eta, ez da inolako jarduerarik egin, eta ez da ingurumenari kalte egiteko arriskurik balioetsi.



**12. OHARRA.- KONTABILITATEKO ARAU BERRIETARA IGAROTZEAREN ONDORIOZKO ALDERDIAK**

Kontabilitateko Plan Orokorra onartu zuen 1514/2007 Errege Dekretuko hirugarren xedapen iragankorrean adierazi zenez, eta kontuan izanik erakundeak ez duela erkatutako kopururik aurkeztu urteko kontu hauetan, aurreko ekitaldiko urteko kontuetan dauden egoeraren balantzea eta galeren eta irabazien kontua erakutsiko ditugu orain:

| AKTIBOA                  | 2007ko ekitaldia  | PASIBOA                           | 2007ko ekitaldia  |
|--------------------------|-------------------|-----------------------------------|-------------------|
|                          |                   | A) FUNTS PROPIOAK                 | 156.638,09        |
|                          |                   | I. Kapital harpidetua             | 200.000,00        |
|                          |                   | V. Aurreko ekitaldietako emaitzak | -7.843,90         |
|                          |                   | VI. Galerak eta irabaziak         | -35.518,01        |
| D) AKTIBO ZIRKULATZAILEA | 340.306,62        | E) EPE MOTZERAKO HARTZEKODUNAK    | 183.668,53        |
| III. Zordunak            | 66.481,98         |                                   |                   |
| VI. Diruzaintza          | 273.824,64        |                                   |                   |
| <b>AKTIBOA GUZTIRA</b>   | <b>340.306,62</b> | <b>PASIBOA GUZTIRA</b>            | <b>340.306,62</b> |

| ZOR                             | 2007ko ekitaldia | HARTZEKO                         | 2007ko ekitaldia |
|---------------------------------|------------------|----------------------------------|------------------|
| A) GASTUAK                      | 49.562,37        | B) DIRU SARRERAK                 | 14.044,36        |
| 6. Bestelako ustiapen gastuak   | 49.562,37        | 1. Ustiapeneko diru sarrerak     | 1.684,85         |
|                                 |                  | I. USTIAPENeko GALERAK           | 47.877,52        |
| II. FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK | 5.010,07         | 5. Finantza sarrerak             | 5.010,07         |
|                                 |                  | c) Bestelakoak                   | 5.010,07         |
| IV. APARTEKO EMAITZA POSITIBOAK | 7.349,44         | III. GALERA AKTIBO ARRUNTAK      | 42.867,45        |
|                                 |                  | 8. Beste Ekitaldietako sarrerak  | 7.349,44         |
|                                 |                  | V. GALERAK, ZERGAk BAINO LEHEN   | 35.518,01        |
|                                 |                  | VI. EKITALDIKO EMAITZA (GALERAK) | 35.518,01        |

4. oharrean zehaztutako balorazio arauak 2008ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuak eta 2008ko urtarrilaren 1ean irekitzeko balantzea prestatzeko erabili dira.

Aipatutako ekitaldia irekitzeko balantzea ondoko arau hauek kontuan izanik egin da:

- Kontabilitateko Plan Orokorren arabera onartu behar diren aktibo eta pasibo guztiak erregistratu dira.
- Ondare elementuak birsailkatu dira, Kontabilitateko Plan Orokorrean azaldutako definizio



## **Fernando Buesa Arena**

eta irizpideekin bat etorriz.

- Sozietateak erabaki du bere ondare elementu guztiak araudi berriaren eredura baloratzea.

2008ko urtarrilaren 1ean kontabilitateko arau berrietara igarotzean sortu diren ez dute ondorio kuantitatiboek aldaketa ekarri.